

# Aretxagazeta

Aretxabaleta  
1995eko irailak 1



Arientzako  
jaiak

Kurtzebarriko  
eguna



Elkasteroak



# Aurtengo Andramaixetan...



## Bukavu Proiektua 1995-97

Laguntza eskatu digute:

- 9 ikasgela
- Altzariak eta osasun zerbitzuak
- Zairen dauden Ruandarrentzat

*Nola lagundu?*

Euskadiko Kutxa: 092.1.04704.3

Kutxa: 0121273320



*HIRUATX-HIRUGARREN MUNDU TALDEA*

*Opor ostetan hemen gara barrero. Atzean utzi genituen Andramaixak, urte oso bat beraien zain egon ondoren. Oraingo ale hau berezi xamarra da, Andramaixek aldizkariaren zatirik haundiena osatzen dute eta. Hurrengo alerako aldaketa batzuk egingo ditugu aldizkarian baina horien berri orduan izango duzue. Besterik gabe, Andramaixei buruzko ale berezi hau gustoko izango duzuelakoan gaude.*


Aretxagazeta

Aretxagazetak ere bisitatu ditu inguruko bazterrak. Honi ere gustatzen zaio hara eta hona ibiltzea. Ezkerreko argazkian Euskal Herriko mendirik altuenera heldu zen, Hiru Erregeen Mahaira hain zuzen ere. Kostata baine... hortxe dago San Frantzisko Xabierko gazteluaren eta Santuaren ondoan. Han goitik edarto ikusiko zituen Euskal Herriko parajeak.

Beste argazkian aldiz Chip urtxintzarekin, Eurodisneyn dago. Chip Aretxagazeta irakurri guran ibili zen baina ez dakit zeozer ulertuko zuen.



Aretxabaletako  
Udalak diruz  
lagundutako  
aldizkaria



Kultur sailak  
diruz  
lagundutako  
aldizkaria



Gipuzkoako  
Foru Aldundiak  
diruz lagundutako  
aldizkaria

**Argitaratzailea:** Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta. Tfnoa: 79 01 05, 151 postakutxatila. Zuzendaria: Iosu Urkia.  
**Erredakzio-kontseilua:** Marta Madinabeitia, Imanol Aginagalde, Miren Eraña, Arantazu Abasolo, Xabin Arriola. **Publizitate eta erredakzio arduraduna:** Iratxe Bengoa. **Kolaboratzaileak:** Aitor Antxia, J.J. Aretxaga, Iñaki Urreta, Loramendi K.E., Udala.  
**Inprimategia:** Eguzkigraf. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94  
Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

**Aretxagazeta**

## Kurtzebarriko eguna

Irailaren 10ean ospatuko da aurten Kurtzebarriko eguna. Murrukixo Mendizale Elkar-teak hainbait ekintza antolatu ditu egun horretarako. 11,30etan meza egongo da eta bertara hurbiltzen direnek salda beroa eta txanpaina edateko aukera izango dute. Honez gain trikitilariak ere han izango dira giroa alaitzen. Eguerdia partera bazkaltzeko Elizabarrira jei-tisiko da.



Kurtzebarriko egunez makina bat lagun biltzen da tontorrean

## Dantzako klaseak

Loramendi dantza taldeko umeen dantza entsaioak irailaren 4an hasiko dira. Iazko ordu-tegi bera izango da eta klaseak beti bezala Lora-mendi dantza taldearen lokalean emango dira.

Bestalde, Loramendi Kultur Elkar-teak antolatutako dantza ikastaroak ere irailaren 4an izango du jarraipena. Beraz, dantza ikastaroan zabil-tzatenok hurbildu zaitezte egun horretan dantza lokalera betiko orduan.

## Arientzan Andramaixak

Aurten ere usadioari jarraituz arientzarrek auzoko jaietarako hainbat ekintza antolatu dituzte. Hilaren 8, 9 eta 10ean ospatuko dira Andramaixak Arientzan. Egun hauetan, tantaia jasotzea, auzo afaria, dantzaldiak, meza, umeendako jolasak, txarri harrapaketa, aro sartze lehiaketa, e.a. izango dira beste ekintza batzuen artean. Beraz, egun hauetan Arientzara hurbiltzen zareten guztiontzat izango da zerikusirik.

## Arantzazura peregrinazioa

Irailaren 4an ohitura den moduan Atxabaltatik peregrinazioa egingo da Arantzazura. Batzuk oinez, kotxez beste batzuk eta autobusez joateko modurik ere izango da.

“Basotxo” jubilatuen etxeak antolatuta esaterako, hiru autobus irtengo dira Arantzazura. Eguna Arantzazun pasako dute eta arratsaldean Oñatitik buelta bat eman ondoren bueltatuko dira etxera.

Egun ona izan dezazutela Arantzazura hurbilduko zareten guztiok.

## Igerilekua

Kirol-etxeko igerilekua itxita egongo da irailaren 5 arte (egun hau barne). Itxita egotearen arrazoia igerilekuan konponketa batzuk egiten ari direnena da.


**T  
X  
I  
L  
A  
R  
R  
A**



ELIKADURA  
BEREZIA

Durana, 35  
Tfnoa: 79 10 15

Loramendi, 9  
Tfnoa: 79 44 28  
ARETXABALETA



LOGOPEDIA  
ZENTRUA

ARRASATE

HIZKUNTZ-ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR-IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3-1 Esk  
Tfnoa: 79 79 46 ARRASATE

FELIX PAGALDAY

Deba Garaiko  
Biona

Pentsuen Banatzailea

Laborantza tresnak

Ongarriak- Haziak

Mitarte, 7 behea ☎ 77 00 33

ZENTRO  
PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak

Erreabilitazio funtzionala

Logopedia

Laguntza terapia

Ignazio Zuloaga kalea, 10  
☎ 79 48 77 ARRASATE

AMETS  
TABERNA

Iparagirre, 4  
Tfnoa: 79 01 29  
ARETXABALETA

INDUSTRIALDEA  
MEDIKU-ZENTROA

Luis Orruño  
Medikua  
Zarraia  
Masaiak eta osteopatia

Industrialdea  
Pabelloi F-O B  
☎ 79 06 82  
ARETXABALETA

## Ikastaroak

Irailetik aurrera hainbat ikastarotan parte hartzeko aukera izango da. Hoiien artean Aerobic, Yoga, Taila eta Espeleologia ikastaroak antolatu dira.

### Aerobic ikastaroa

Irailaren 11n hasiko da Aerobic ikastaroa. Loramendi dantza taldearen lokalean emango dira klaseak eta irakaslea, Pili Muñagorri izango da.


Klaseak goizez eta arratsaldez emango dira. Goizez 9,10etatik 10,10ak arte eta ondorengo egunetan, astelehen, asteazken eta eguakotxetan. Arratsaldetan barrez, martizen, eguen eta eguakotxetan 3etatik 4ak arte eta ilunkaran 7etatik 8ak arte astelehen eta asteazkenean; eguenean barrez, 8etatik 9ak arte.

Ikastaroaren prezioa 2500 pezetakoa da eta apuntatu gura izanez gero 79 07 93 telefonora deitu.

### Yoga ikastaroa

Yoga ikastaroa irailaren hasieran hasiko da. Ikastaroa astean bi ordutakoa izango da. Alde batetik, astelehenetan eta asteazkenetan 3retatik 4,30ak arte eta martizen eta eguenetan goizez 10,15etatik 11,45ak arte eta arratsaldez 6,30etatik 8ak arte izango da.

Irakaslea Enkarna Mendez izango da eta Loramendiko Dantza taldearen lokalean emango dira klaseak. Yoga zer den jakiteko gogoia baduzu hortxe duzu aukera. Izen emateko Kultur-etxean egin dezakezue edo eta 79 88 53 telefonora deituz eta Enkarnagatik galdetuz. Prezioa 2500 pezetakoa da.



*Espeleologia ikastaroak inguruko haitzuloak ezagutzeko aukera ematen du*

### Espeleologia ikastaroa

Aurten ere espeleologia ikastaroa antolatu du Murruxiko Mendizale Elkarteak. Irailean hasi eta hilabeteko iraupena izango du. Ikastaroa astebukaeretan emango da.

Monitore lanetan, Jabier Etxebarrieta (Patas), Jose A. Atxaga eta Manu Altube arituko dira.

Lehenengo astean kiroldegian hainbat teknika erakutsiko dira eta hurrengo egunetan kobazulotara egingo dira irteerak.

Ikastaroaren prezioa 2000 pezetakoa da eta apuntatu gura izan ezkerok Kultur-etxera jo lehenbailehen, apuntatzeko azken eguna irailaren 8a da eta.

### Taila ikastaroa

Urriaren hasieran hasiko da taila ikastaroa. Okila Taila Elkarteak antolatu du eta bertako lokalean emango da. Astean hiru egunetan emango dira klaseak, ilunkaratan 6etatik 8etara. Guztira 60 bat ordutako ikastaroa da eta lehenengo mailatik hasiko da.

Apuntatzeko kultur etxera edo Okila Taila Elkarteak duen lokalera (Zaraia kalea) jo lehenbailehen. Prezioa guztiz zehaztuta ez badago ere jubilatuek eta gazte txartela dutenek prezio erdia ordaindu beharko dute.



# LASAGABASTER

## Zure Konfiantzazko Denda

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE  
TFNOAK.: 79 27 27 / 79 13 55



Arantxa Jaka Agustindar Elkarteko lekaimea da

Arantxa Jaka, 27 urtetako donostiarra duela 4 urte etorri zen Aretxabaletako Agustindar Elkartera. Joan den uztailaren 23an lekaime izateko profesia nagusia egin zuen, Jainkoaren aurrean betiko zin hitza emanaz. Eraztuna jantzi zuen, betirako konsagratu zela adierazteko eta belo txuria beltzagatik ordezkatu zuen elizaren zerbitzuan bizitza guztian biziko zela baieztatzeke.

Monjetako eliza bete-beterik egon zen. Ospakizun hunkigarria bizi izan zuten bertan bildu ziren lagunek. 16 apaiz egon ziren eta bertan batzordeburu Setien Gotzaia.

*“Nire bizitzarekin Jainkoaren lehentasuna azpimarratu nahi dut”*

**□ Nola bizi izan zenuen lekaime egin zineneko ospakizuna?**

Niretzat oso ospakizun pozgarria izan zen. Oso esperientzia ona eta ez nuke ezergatik aldatuko. Jainkoa bete-betean zure bizitzan sartzea nahi duzu eta hau benetan momentu pozgarria da.

**□ Noiz erabaki zenuen lekaime sartu nahi zenuela?**

Prozesu luzea da. Gaztetandik taldeetan mugitu naiz beti, eskolako, sendotzako, taldeetan, e.a. Elizaren inguruan mugitu naiz, Elizbarrutiko Karitasen ere lan egin dut. 21 urterekin erabaki nuen kontenplari izan nahi nuela eta 23 urtekin etorri nintzen Elkarte honetara.

**□ Zer da ordea kontenplari izatea?**

Bizitza estilo bat da. Itxitura baten barruan bizi diren erlijiosak gara. Kontenplari bizitzan otoitza

da ardatz nagusia, elkarte bizitza, bakardadea, ixiltasuna, e.a. Jainkoarekiko harremana oso estua da. Gure eginkizuna Jainkoaren lehentasuna azpimarratzea da, ez ekintzaren bidez, gure bizitza motaren bidez baizik.

**□ Zuk aukeratu zenuen Atxabaltara etortzea?**

Bai, nik aukeratu nuen. Guztiz ezezaguna nuen lehen Aretxabaleta. Agustindar Elkarteko erlijiosak euskeraz bizi zirela jakin nuen eta nik nahi nuen estilo bizitzara gehien hurbiltzen zen elkarte zen.

**□ Zein da zure misioa bizitza honetan?**

Elkarbizitzan bizitzea, eta nire bizitzan ahalik eta gehien ematea. Jainkoak bokazio hau eman dit eta honek aurrera joateko eta zailtasunak gainditzeko indarra ematen dit. Jainkoaren benetako testigu izatea nahi dut.

**□ Zein da zuretzat inguruan somatzen duzun beharrik**

**premiazkoena?**

Nire inguruan pobretasuna somatzen dut. Ez pobretasun materiala baizik eta gizon-emakume asko ilusiorik gabe bizi dela uste dut. Uztasuna nabari dut jendearengan eta hori pobretasun haundia da niretzat. Bizitzak zentzu bat eduki behar du pertsonarengan. Bizitzan aurrera egiteko zentzu hori falta zaiola uste dut gizarteari.

**□ Magisteritza ikasten ari zara, zer moduz doakizu, zelakoa da zure harremana klaseko jendearekin?**

Hirugarren kurtsoa egin behar dut aurten eta momentuz oso gustora nago. Gelan oso giro ona dago eta orokorrean pozik nago klaseko jendearekin.

**□ Eta bukatzeko Arantxa, kontatuko diguzu zeintzuk diren zure afizioak?**

Irakurtzea asko gustatzen zait, baita otoitz egitea, idaztea, ikastea eta elkarteko giroa ere.

BEIRALAN

KRISTALDEGIA  
Loramendi 10 ☎ 79 81 78  
Aretxabaleta

Berrikuntzak

MODAN  
DAGOEN  
GUZTIA

Iparragirre, 4 Tfnoa.79 21 24

FOTO

Tfnoa: 79 39 20  
ARETXABALETA

GARBITU S. KOOP

Garbiketa  
orokorrak

Errekabarren 3- Behea  
Tfnoa: 79 01 28

Uztailean gure artean izan genuen Arantxa Zubizarreta. Izatez eta jaiotzez atxabaltarra da baina aspaldi hontan Alemanian bizi da.

1972. urtean aleman ikasi gura zuela eta Alemaniara joan zen. Joan zenean han gelditzeko asmorik ez bazuen ere, bertan gelditu eta dagoeneko 23 urte eman ditu bertan.

Alemaniko Kröv herrian bizi da, Luxemburgoko eta Frantziako frontieratik gertu; Mosela deritzon eskualdean. Oso ezaguna da bertako ardo txuria.

Uztaila inguruan urtero etortzen da Arantxa bere jaioterrira eta oraingo honetan elkarrizketa bat egin gabe ez genion joaten utzi.



Arantxa Zubizarreta Alemaniako lagun batekin

## Arantxa Zubizarreta: "Alemanian gustora bizi naiz baina hona ere pozik etortzen naiz"

### Zer dela eta joan zinen

#### Alemaniarara?

Alemaniera ikasteko joan nintzen Alemaniara. Hasieran ez neukan bertan gelditzeko asmorik baina hantxe gelditu nintzen.

### Gogorra egin zitzaizun hango bizimodua?

Bai, hasieran bai, alemanieraz ezertxo ere ez nekien eta.

### Eta nola ikasi zenuen?

Ba... neure kontura asko, liburuetatik, e.a.

### Non lan egiten duzu?

Umeen zentru batetan lan egiten dut, umeen hezitzaile moduan. Arazoak dituzten haurrak dira, umezurtzak, e.a.

### Uda partea jaien sasoia dela eta... nolakoak dira Alemaniako jaiak?

Hemengoz desberdinak. Txikiteoa ez da ezagutzen eta ezta zezenik ere. Txarangarik, herri kirolik eta umeentzako jolasik ere ez.

Umeentzako barrakak egoten dira baina ordaindu behar direnak. Nirekin handik hona etortzen direnak harrিতa gelditzen dira umeentzat dauden ekintza mordoaz eta dohainik gainera.

Hemen dagoen anbienterik ez dago han.

### Nola ospatzen dituzue jaiak?

Banda edo musika talde bat egoten da. Gura duenak dantza egiten du eta bestela jarri eta ikusten egon.

### Poteorik ez da ezagutzen orduan?

Ez, hori hemengo ohitura da. Han taberna batera joan eta han denbora luzean egoten gara. Taberna horretan zerbeza bat baino gehiago hartzen da.

### Suzko erruerarik egoten da?

Bai, suzko erruerak bai.

### Etortzen zarenean, bertako norbait ekartzen duzu zurekin.

Zer da hemendik gehien gustatzen zaiena?

Paisaia asko gustatzen zaie. Honez gain, behin Aretxabaletako abesbatza entzun genuen eta harriturik gelditu ziren zeinen ondo kantatzen zuten entzutean. Hemengo gastronomia ere asko gustatzen zaie eta baita kooperatibak, Elkarteak, eta hori bai txikiteoa.

### Nolako da zu bizi zaren ingurua?

Hau baino hotzagoa da. Negu luzea izaten dugu. Oso inguru berdea da. Ni Mosela deritzon eskualdean bizi naiz, ardo txuriagatik ezaguna da. Mahasti asko daude eta ardo txuria egiten da.

### Bukatzeko, zer ekarriko zenuke Alemaniatik hona eta zer hara eraman?

Puntualitatea ekarriko nuke. Eraman aldiz horrenbeste gauza egingo nituzke..., hemengo alkartasuna, ambientea, kalera irtetzeko ohitura.

#### BITXITEGIA

MIREN & ZURINE  
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA

Otalora kalea  
Eliza aurrean  
Tfnoa: 77 13 57

ARETXABALETAKO  
INDUSTRIALDEA, S.A.

"ARINSA"

Basabe Poligonoa "EO-10"  
Telefona: 79 62 80  
ARETXABALETA (GIPUZKOA)

MATIKUA

Taberna

Aozaratza auzoa  
☎ 79 16 68  
ARETXABALETA



MAPFRE

Aseguroak

Erreka barren, 3  
Tfnoa: 77 11 76


# Andramaixa k

95

Lagun gutxi egon dela jaietan? Hala komentatzen da behintzat kalean, aurten beste urte batzutan baino lagun gutxiago egon dela Andramaixetan. Eguraldiak lagundu du behintzat.

Baina gauza bat garbi gelditu da, herriko jaiak animazioa behar dutela, EGUNEKO ETA KALEKO ANIMAZIOA.

Hirugarren eguna izan da aurten ere animatuena, baina pena bat da herri bazkaririk ez izatea. Datorren urterako azken egunera arte begira ez gara gelditu beharko bestela berdina pasatuko zaigu eta. Ondorengo orrietan doakizue Andramaixei buruzko laburpen bat argazkitan.





**ABUZTUAK 14, ASTELEHENA  
JAI BEZPERA**




Hona hemen Mus Txapelketako irabazleak. Lehenak Francisco Jabier Manteca eta Jacinto Guerrero izan ziren. Bigarrenak mendiolatarrak, Anton Lete eta Prudentzio Arrese. Hirugarrenak, Daniel Lizaranzu eta Rufino Martinez. Zorionak guztioi.




A ze nolako erakusketa polita izan genuen Andramari bezperan. Aintzinako kotxe dotoreen desfilea eta espozizioa.



Urtero moduan lagun mordoa bildu zen Ikurrinari Agurra egiteko. Zinegotzi batzuk eta Alkatea bertan elkartu ziren. Dantzariak dantzatu, alkateak pregoia eta txupinazoa bota eta txalapartarien doinuaz eman zitzaien jaiei hasiera.



Bolo txapelketa jokatu zen gauean. Honako hontan goiko argazkian duzuen Aitor Gabilondo izan zen irabazlea. Lastima, txapel eta kopa gabe harrapatu genuena.



**Dorleta  
Taberna**

Loramendi, 8  
Tfnoa: 79 94 15  
**Aretxabaleta**

**MIKELOS**

Moda  
Guztia Zuretzat

Iparagirre 3 ☎ 79 36 67  
**ARETXABALETA**

**M**obiliario  
**A**RENAZA

ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA


Bizkaia, 1 - Tfnoa: 79 08 07 Aretxabaleta

## ABUZTUAK 15, MARTIZENA ANDRA MARI EGUNA



Alkatea eta zinegotziak meza ostean txistularien doinuarekin bat joan ziren udaletxera

Batzuk ez zuten dibertitzeko astirik izan jaietan. Otalazpi fin-fin aritu zen lanean beste batzuek Argiñanok baino oilasko goxoagoak egiten



Musika doinurik ez zen faltatu Andra Mari egunez. Ohitura jarraituz, Zumaiako Bandak kalejira egin ondoren kontzertua eskaini zuen herriko plazan. Txaranga ere hor aritu zen kaleak animatzen.



**KELER**



El León

### FELIX ARRESE

Edari Banatzailea

Industrialdean  
Tfnoa: 79 60 65

### ENBOR

*Eloy Borgas Iglesias*

- Sukalde muntatzailea
- Aroztegia orokorrean

Santa Kurtz, 24 Aretxabaleta  
Tfno-Faxa: 79 02 51

### ZARAIA TABERNA

Goizeko 5,30etatik zure zerbitzuan

MANTEKA ANAIK

## ABUZTUAK 16 ASTEAZKENA

### 2. EGUNA



Gaztetxoek gustora ikusi zituzten herri kirolak tablautik, gerizpe gerizpetan gainera. Herri kirolak ikustera lagun asko hurbildu zen plazara.



Trikitixa Kontraio taldekoak kriston giroa jartzen ahalegindu ziren baina ez zuten askotarako balio izan.



Argazkikoak ez dira etxeokoak, baina kanpotarrak ere izan dira jaixetan eta horrelako agurra bota eta gero... lekutxo bat utzi egin behar hauei ere.



**AITZIBER**  
NIÑO

Lezama Merkatal Zentrua  
Tfnoa: 79 13 32

**Maritxu**  
Mertzeria

Araba Ibilbidea, 24  
Tfnoa: 79 23 53  
ARETXABALETA

**LASA AGUILERA**

Aholkularitza

Andra Mari Auzunea,3  
☎ 79 29 26  
ARETXABALETA


**OSKAR**

HARATEGIA

Loramendi,1  
☎ 79 71 69

**ABUZTUAK 17, OSTEGUNA  
HIRUGARREN EGUNA**

**Arratsaldean lagun asko  
egon zen sokamuturrean**



Batek baino gehiagok susto galanta hartu zuen tximino haundi hauekin, beste batzuk barrez, barre gustora egin zuten.

Ezin zezena zirikatu gabe utzi.



Hau bai neska kuadrila, jai giroa jarri zuten behintzat. Aber datorren urterako hauek bezala lagun gehiago animatzen den.

**Amaia-Berri, S.L**

Gasa- Klimatizazioa-Isurkor Teknologia

Otalora, 18 behea

Tfno-Faxa: 77 06 49 ARETXABALETA



IBARRA

ESTANKOA

Tabakoa eta ikasmateriala

Bizkaia, 3 Tfnoa: 79 23 77

**MENDIOLA  
ERRETEGIA**

Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita

Tfnoa: 71 43 45  
ESKORIATZA

## Pelota partiduek urtetik urtera lagun gehiago erakartzen dute

Abuztuaren 15ean eta 16an pelota partiduak izan ziren Iturri gorri frontoian. Hori da lagun pila bertan bildu zena. Aulki guztiak beteta eta horiez gain lagun asko zutik egon zen partiduei begira.

Gainera, atxabaltarron pozerako etxeokak izan ziren irabazle, Ibon eta Unai Errasti hain zuzen ere. Garaipen honekin iazko garaipena errepikatu dute. Berandu baina zorionak gure herriko bi pelotari gazte hauei. Aurrerantzean ere halaxe jarrai dezatela.

Juan Mari Errasti atxabaltarra, aritu zen pelota partiduak antolatzen eta oso pozik azaldu zen jendeak emandako erantzunarekin, *“aurten sekula baino lagun gehiago hurbildu da pelota partiduetara”* honela adierazi zigun Juan Mari Errastik.



Etxekoak izan genituen aurten pelotan irabazle. Unai eta Ibon Errasti erraz nagusitu ziren Ubera-Iñurrategi pelotarien aurka. Juan Antonio Rodriggez alkatea eta Bixente Etxandia UDAko presidentea han izan ziren sariak banatzen

**Pelota partiduen emaitzak ondorengoak izan ziren:**

**Abuztuak 15, martizena:**

Unai Ibon Errasti	22
Korta-Ibarreta	11

Salinas-Alonso	16
Ubera-Iñurrategi	22

**Abuztuak 16, asteazkena**

Barberito-Etxebarria	16
Salinas-Alonso	22

Unai Ibon Errasti	22
Ubera-Iñurrategi	7



Atxabaltar eta kanpotar asko bildu zen pelota partiduak ikustera

### IMANOL JANARI DENDA

Harategia  
BEREZIKI Urdaitegia  
Fruitategia  
Gorbea Kalea ☎ 79 05 83 ARETXABALETAK

### LEIBAR ARRAINDEGIA



Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 77 13 79  
ARETXABALETAK

## Txirrindulari lasterketan partaidetza haundia



Txirrindulari lasterketako irabazlea Iosu Isasi

15 talde desberdinetako 192 txirrindularik parte hartu zuten Andra Mari 2.ean korritu zen lehen eta bigarren mailako afizionatu lasterketan. Hauetatik 107 txirrindulari klasifikatu ziren. 122 Km izan zituen ibilbideak eta iaz bezala txirrindulariek Epeletik bi bider pasatu beharra eduki zuten. Herritik bertatik ere askotan pasatu ziren. Goizeko 9,30etan hasi zen lasterketa eta 12,30ak inguruan bukatu zen. Sprintean erabaki zen lasterketa eta azkenean azkarrena Iosu Isasi Flores, Ripolin Bondex taldekoa izan zen, 2ordu 51' 50"ko denbora eginez, 2. Iñaki Manterola eta 3. tokia A. De La Morena Saez de Ibarrek lortu zuten. Taldekako saria Ripolin Bondexek eskuratu zuten.


Aipatzekoa da lasterketan japonese batek parte hartu zuela, Seiji Ishigurok hain zuzen ere. Ez zuen ibilbidea amaitzerik lortu erretiratu egin zen eta.

## Herri kirolean aizkolariak eta harrijasotzailea izan genituen



Nartxi Saralegi 35 urtetako leitzarrak eta Daniel Vicente 25 urtetako otxagabiarrak saio bitxia eskaini zuten. Hiru modalitate desberdinetako ebaketa saioa egin zuten, ebaketa horizontala, ebaketa bertikala eta ebaketa pendularra. Esan behar guztietan Saralegi nagusitu zela. Bukatzeko, esku bakarrez enbor bana moztu zuten.

Saralegik dotore jaso zituen harriak behin eta barrero. Lastima, hona record barririk egitera etorri ez zana.




**ARGI-PLASTIC**

Leihoak egiten dira

Axeri,3 ARRASATE

Tfnoa: 77 11 30



**EGUSKIGRAF**

Aldizkariak

Inpresoak


Bulegoko materialak

Aretxabaletako Industrialdea, F-0-4 ARETXABALETA


Tfnoa: 943- 79 18 44

Faxa: 943- 79 29 41

# Umeentzat ekintza mordoa herriko jaietan



Haurrak ondo pasatzeko ekintza mordoa izan zituzten Andramaixetan. Herriko plazan egunero parkea izateaz gain, gaztetxoenek bolo txapelketa, marrazki lehiaketa eta beste hainbat ekintzatan parte hartu ahal izan zuten. Barrakak ere hor izan ziren. Hau bai hau dibertitzeko gauza piloa.



## SAGASTA

### ELEKTRIZITATEA

Elektrogailuak  
Elektra-instalakuntzak  
Otalora, 14  
Tfnoa: 79 16 10

## MARI-MERKE

Ikastolako materiala  
Lezama Merkatal Zentrua  
ARETXABALETA



## AZKENA TABERNA

Solohaundi, 8 ☎ 79 74 57

## Andramaixetan zer egon da faltan eta zer sobran?

*Roberto Urreta  
(Langilea)*

*Faltan, zezenari zer-beza tragu batzuk ematea. Sobran zer egon dan... momentu honetan ez zait ezer burura etorten. Orokorrean jaiak ondo egon dira.*



*Irati Urzelai  
(Ikaslea)*

*Guretako gauza mor-do bat egon dira Andramaixetan. Ezin naiz ezertaz kexatu. Faltan zer egon den ez zait bururatzen.*



*Naiara Carrasco  
(Ikaslea)*

*Faltan, kontzierto on bat beharbada. Bestela jaiak ondo egon dira, kotxe espozizioa, e.a.*



*Asier Zubia eta  
Igor San Juan*


*Erromerixan, dantzan egiteko jendiak falta egin du, ez da ia inor egon eta.*

*Sobran barrez, muti-lak, moruak, baltzak, japonesak, e.a. egon dira.*



*Lutxi Izurrategi  
(Jubilatua)*

*Andramaixetan lagun gutxi egon dela uste dut. Animazio gutxi egon da. Bestalde umeentzako ekintza asko egon da. Suzko erruerak asko gustatu zitzaizkidan.*



*Pilar Izurrategi  
(Jubilatua)*

*Gauetz zarata haundia egon da. Lehengo plazako dantzaldi eder-rrak faltan botatzen ditut.*



### Artano Taberna

Herriko Enparantza  
**ARETXABALETA**

### "HERRASTI" AKEITA



Aralar kalea, 7  
Tfnoa: 79 32 83

### MEMESA S.L.

Santa Kurtz, 25-27  
Tfnoa: 77 11 75  
**ARETXABALETA**

### Hortz klinika

**Imanol Arrazola  
Otxoa**  
Mediku-Odontologoa  
Col. 405

Otalora 18 - 1.º D  
20.550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)  
Tf: 79 93 55




## Noizko Andramaixetan?

**N**oizkoak ete dira bi argazki hauek? Hain zaharrak ere ez dira, 1968. urtekoak hor nonbait. Egia esan 3. eguna izaten zen lehenago ere egunik girotuena. Hona hemen Andramaixetako 3. egunean ateratako 2 argazki.

Ezkerreko argazkian dauden batzuk hauexek dira: (nahastu xamar daudela kontutan hartuz bakoitzak atera ditzala kontuak)

Goitik eta ezkerretik hasita: Agustin Aginagalde, Jesus Mari Herrasti, Jesus Orobengoa, Enrike Irizar, Fernando Lasgabaster, Iñaki (Frantza), Angel Garciaetxabe, Javier Leanizbarrutia, Juan Luis Iturbe, M. Angel Iturbe, Koldo Iriarte, Javier Elkoro, Jesus Mari Arenaza, Juan Antonio Zubiria, Javier Urzelai, Jose Mari Idigoras eta ezkutatuta dagoena Juan Ramon Bengoa.

Beheko argazkian, behetik eta eskumatik hasita: Luis Mari Otxoa, Jesus Mari Arrese, Jose Manuel Gabilondo, Karmelo Usandizaga, Nikasio Unanue, Pedro Mari Leanizbarrutia, Anton Aginagalde, Jesus Mari Martinez, Juan Antonio Rodriguez (Alkatea), Jesus Iturbe, e.a.



## Mikel Saralegi

Harrijasotzailea



Andramaixetan gure artean ikusteko aukera izan genuen Mikel Saralegi. 27 urtetako mutila, leitzarra, harrijasotzailea eta Iñaki Perurenak baino harri pisutsuagoa jaso duena, 322 Kilotako harria hain zuzen ere. Horrelako kirolariak beti ondoan izaten ez direla eta elkarrizketa txikitxo bat egin genion.

• **Izatez nongoa zara?**

Leitzarra

• **Non bizi zara?**

Iruñean bizi naiz, baina astebukaerak Leitzaan pasatzen ditut.

• **Nondik nora harrijasotzaile?**

Familiatik datorkit zaletasuna. Aitak herri-kirolen saioak antolatu izan ditu beti. Anai-arreben artean, bi arreba aizkolariak ditut, baina aitak harrijasotzaile bat nahi zuen.

• **Zenbat urterekin hasi zinen harrijasotzen?**

12 urterekin hasi nintzen baina serio 17 urterekin, gogor entrenatzen, e.a.

• **Entrenamenduak zer nolakoak dira?**

Gogor entrenatu beharra dago. Urria aldera hasten dira entrenamenduak eta apirilera arte irauten dute gutxigorabehera, saioak eta txapelketak hasten diren arte. Egunero hiru bat ordu entrenatzen ditut, gimnasioan, e.a.

• **Non lan egiten duzu?**

Iruñako gimnasio batetan monitorea naiz.

• **Euskal Herritik kanpo ibilia zara harrijasotzen?**

Bai, Estatu Batuetan, Alemanian eta Frantzia Bretaña aldean ere bai. Batzuk gezurrezko harriak izango zirela pentsatzen zuten eta harria ikutu arte ez zuten sinesten.

• **Ezkonduta?**

Ez, oraindik soltero, ez dut neskarik engainatzerik lortu.



Uztaileko alean  
lehiaketa irabazi  
zuen Mainer  
Urzelai izan zen

On egin!!!

## KILOMETROAK LEHIAKETA

Jakingo duzue, aurtengo Kilometroak jaia Donostiako Groseko auzoan ospatuko da, urriak 1. Aurten, bi ikastolek antolatu behar dute jaia, Herri Ametsa eta Zurriola ikastolek hain zuzen ere.

Aretxagazetak ere parte hartu gura izan du Kilometro jaiari laguntzen. Horretarako ondorengo lehiaketa proposatzen du. Kilometroak jaiaren logotipoa aldizkarian nonbait gordeta dago. Aurkitu eta zein orrialdetan dagoen adierazi eta gure bulegora bidali beharko duzue erantzuna. (Kultur etxean dagoen buzoira edo postaz bidaliz gero Aretxagazeta, 151 postakutxatila, 20500 Aretxabaleta). Non dagoen asmatzen duzuenon artean, KILOMETROAK 95ek salmentan duen materiala erosteko, 5.000 pezetako balio duen agiria zozketatuko da.

Agiri honekin Groseko KILOMETROAKen denda (Mirakruz 6) materiala trukatu zaitzue edo baita urriaren 1ean KILOMETROAKen salmentetan ere.

Animatu eta parte hartu.

*Zein orrialdetan dago*

**KILOMETROAK 95**

*jaiaren logotipoa?*

*\*Aurreko aleko erantzuna "6 logela" zen.*



Erantzuna: .....

Izena: .....

Kalea: .....

Tfnoa: .....

ARETXABALETA



**Irailak 3 domeka**

**ZIKLOTURISTEN IRTEERA**

Aretxabaleta-Arlaban-Legutiano-Otxandixo-Zubizabal-Ubidea-Landa-Aretxabaleta. Guztira 64 Km egingo dituzte. Goizeko 9etan izango da irteera Zaraia kaletik.

**Irailak 4 astelehena**

**DANTZAKO KLASEN HASIERA**

Loramendi dantza taldeko umeen klaseak egun honetan hasiko dira eta betiko orduetan. Loramendi Kultur Elkarteak antolatutako dantza ikastaroa ere egun berean hasiko da eta lehengo ordu berdinetan.

**ARANTZAZURA PEREGRINAZIOA**

**Irailak 8, 9, 10**

**ANDRA MARI JAIK ARIENTZAN**

**Irailak 10 domeka**

**KURTZEBARRIKO EGUNA**

ZARAIA M.T. eta MURRUKIXO M. ELKARTEAK Kurtzebarrira egingo dute irteera.

**ZIKLOTURISTEN IRTEERA**

Aretxabaleta-Eskoriatza-Arrasate-Oñati-Udana-Legazpia-Deskarga-Bergara-Aretxabaleta. Guztira 64 Km. Goizeko 9etan izango da irteera Zaraia kaletik.

Gogoratu espeleologia yoga, taila eta aerobic ikastaroak laster hasiko direla. Horregatik apuntatu gura duzenok ahalik eta azkarren egin ezazue Kultur-etxean edo eta adierazitako tokietan.

BEHARREZKO TELEFONOAK



**Aretxabaleta**

• Udal Bulegoak	79 10 00
• Udaltzaingoa	77 45 67
• Euskaltegia	79 21 68
• Postetxea	79 28 31
• Kultur-Etxea	79 01 05
• Gizarte-Laguntzailea	79 10 00
• Kiroletxea	79 64 61
• Parrokia (Bulegoa)	79 18 42
• Basotxo	77 09 81
• Urats Gain	79 99 11
• Osasun zentroa	79 74 58
• Hezibide Elkarte	79 31 32
• Industrialdea	79 62 80
• Liburutegia	79 10 00
• Taxi Geltokia	79 22 33
• Loramendi K.E.	77 0970
• Murrukixo M.E.	79 93 74
• Leniz Lanbide Esk.	79 79 00
• Kurtzebarri Eskola	79 00 49
• Pausoka Haur-Esk.	77 03 77
• Santa Rita Ikastetxea	79 17 00
• ALMEN	71 49 64
• Otalora	79 79 99

**Udaltzaingoa**

• Arrasate	79 14 39
• Bergara	76 14 69
• Eskoriatza	79 03 22
• Oñati	78 04 11

**Denetarik**

• Eskualde-Ospitala (Arrasate)	79 53 00
• Gurutze-Gorria (Bergara)	76 55 76
• Ertzaintza (Arrasate)	79 71 99
• Suhiltzaileak (Oñati)	79 28 00
• Renfe (Zumarraga)	72 15 15
• Renfe (Gasteiz)	23 20 30
• Pesa (Arrasate)	79 14 19
• Larrialdiak (Arrasate)	79 13 57
• Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzeen Elkarte	79 87 77
• Deba Garaiko Udal Elkarte	79 33 99
• SOS Deiak	088

*Okindegia - Gaxotegia  
Panaderia - Pasteleria*

**Aretxabaleta**

Militarte, 1 - Tfno. 77 00 81

Aretxabaleta

Obrador Propio

**ARBULO HARATEGIA**

Santa Kurt, 5  
Tfnoa: 79 02 24  
ARETXABALETA



Basabe Poligonoa A-15  
☎ 79 34 28  
ARETXABALETA

**ITURGINTZA**



Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87

**CONSUM EROSKI**

BETI ZURÉ ZERBITZURA

Durana, 8  
Tfnoa: 79 19 34

Aralar z/g  
Tfnoa: 79 16 05

ARETXABALETA

# Truke Operazioa

Amuebladora Mondragonesa

EKARRI DIZUGU  
KOLTXOI ZAHARRA...



... ETA 10.000 PEZETA  
ARTE DESKONTATUKO

Dizkizugu Zure Atsedan  
Sistema Berria

# FLEX


Eta loa kenduko  
ez dizuten prezioak  
zatoz galdetu!



grupo



Amuebladora  
Mondragonesa



a. eme. interiores, Garibai, 9 MONDRAGON  
centro hogar muebles, Zigarrola, 1 MONDRAGON